

ISACA ROADSHOW BILBAO I. BILTZARRA

- **Bizkaia Aretoan ospatu da biltzarra eta zibersegurtasunari, informazioaren teknologiei eta arrisku teknologikoei lotutako Espainiako iparraldeko profesionalak bildu dira bertan.**
- **BCSCk “Zibersegurtasuneko krisien kudeaketa” aditu-taldean parte hartu du.**

[ISACA](#) irabazi askorik gabeko elkarte globala da, 1969an sortua. Egun 188 herrialdetan banatutako 150.000 profesional baino gehiagok osatzen dute. Negozioetarako gaitasun eta ezagutza kritikoen areagotzea eta ziurtatzea sustatzea du helburu elkarteak. [Ziurtagiri](#) ezagunez baliatzen da horretarako, hala nola: Certified Information Systems Auditor® (CISA®), Certified Information Security Manager® (CISM®), Certified in the Governance of Enterprise IT® (CGEIT®) eta Certified in Risk and Information Systems Control™ (CRISC™).

Horri dagokionez, [ISACA](#) Roadshow Bilbao biltzarra ospatu zen iragan maiatzaren 10ean Bizkaia Aretoan, ISACAk Euskadin antolatzen dituen *roadshow*etan lehena, [Osane Consulting](#), [P3rseus](#) eta [Pribatua](#) etheen babesarekin antolatua. Ekimenean informazioaren teknologien aholkularitzan, zibersegurtasunean, arrisku teknologikoetan eta informazioaren teknologien gobernamentuan lanean ari diren Espainiako iparraldeko profesionalak parte hartu zuten. Biltzarra Euskadira iritsi bada, estatu mailan zibersegurtasuneko gune nabarmenetako bat delako izan da, iaz BCSCk editatutako Euskadiko zibersegurtasunaren liburu zuriak erakusten duen bezala; izan ere, zerbaitegatik dauzka ISACAk 60 bazkide Euskadin, Kantabrian, Aragoian eta Nafarroan.

Maila handiko biltzarra

Hitzaldiak eta mahai-inguruak ospatu ziren maiatzaren 10eko jardunaldian, ikuspuntu praktikoa bat bilatuz. 150 profesional baino gehiago bertaratu ziren, eta horien artean zeuden tradizio handiko euskal enpresak, eta bai erakunde publikoak ere. Tradizio handiko enpresen artean [Eroski](#), [Euskaltel](#), [ITPAero](#), [Siemens-Gamesa](#), [Elecnor taldea](#), [Tecnalia](#) eta [RETAbet](#) etxeak izan ziren

info@bcsc.eus | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510
Vitoria-Gasteiz



presente; erakunde publikoen artean, bestalde, [Ertzaintza](#), [INCIBE](#), [Metro Bilbao](#), [EITB](#) eta BCSC bera izan ziren.

Biltzarra ISACA Madrileko presidente den Ricardo Barrasaren ongi-etorriarekin abiatu zen, eta hari jarraitu zion Marcos Gómez Zibersegurtasuneko Institutu Nazionaleko (INCIBE) operazioen zuzendariordearen inaugurazio-hitzaldiak. Horren ondoren etorri ziren gainerako hitz-hartze eta panelak:

- “Auditoretzaren funtzioaren eta kontrolaren egoera Euskadin” panela.
- ISACAren hitz-hartzea, Erik de Pablo eta Ricardo Barrasarekin.
- “Zibersegurtasuneko krisien kudeaketa” panela.
- “Zibersegurtasuneko auditoretza eta arriskuen kudeaketa industrian eta txikizkako salmenten sektorean” panela.

Zenbait puntu nabarmendu ziren jardunaldian zehar. Lehenik eta behin, erabiltzaileen kontzientziazioan lan egiteko beharra, sareko mehatxuen aurrean babestuago egon daitezzen; bigarren, krisi-egoerak kudeatzeko prozedura eta mekanismoak ezartzearen garrantzia; eta, hirugarren, ageriko bokazio-gabezia bat, egun profesional asko eskatzen dituen sektore batean eta etorkizunean ere halako joera mantenduko duela espero denean.

Zibersegurtasunaren Euskal Zentroak bi aldiz parte hartu zuen “Zibersegurtasuneko krisien kudeaketa” panelean; batetik, [CSIRT](#)eko arduradun den Asier Martínez Retenagaren eskutik, eta, bestetik, Informazioaren Teknologien Delitueta Sekzio Zentraleko (SCDTI) buru den Manu Viotaren eskutik. Asierren beraren hitzetan, “aldian-aldian sute-simulazioak egiten diren bezala, intzidentzien kudeaketako simulazioak ere egin beharko lirateke, estres handiko egoeretan modu egokian jarduteko behar diren automatismoak lortzeari begira, egoera horietan funtsezkoa baita azkar jokatea”.

Estatuko iparraldean bizi diren sektoreko profesionalen komunitatearen hazkundera sustatze aldera ISACAk abiatutako lehen pausuetako bat izan da biltzarra.

info@bcsc.eus | 945 010 059

Parque Tecnológico de Álava
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510
Vitoria-Gasteiz

